



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2008-2009 IKASTURTEA

1. SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzak ISO 9001:2000 ziurtagiria lortu ondoren egin den 2008/11ko Hiru Urteko Planaren garapenari dagokion lehen Urteko Plana da hau. 2007/08 Urteko Planaren ebaluazioaren (Sistema Berrikusteari buruzko Txostenaren) ondorioz, aurreko planak aldatzen ditu eta iturri hauek hartu ditu kontuan:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuordetzaren eta hainbat zuzendaritzen eskaerak.
- Lurraldearteko Koordinazio Batzordeak Zonalde Burutzekin 2007/08 ikasturtearen bukaeran egindako bileran lortutako ondorioak.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak.
- Kalitate Batzordearen proposamenak, UNE-EN ISO 9001:2000 ziurtagiriarekin jarraitzeko asmoz.
- 2007/08 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barne- eta kanpo-auditorien emaitzak.
- 2007/08 ikasturtearen bukaeran egin zen berrikuspena, Xedeari, Ikuspegiari eta Balioei buruzkoa, bai eta Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren dokumentazioari buruzkoa.
- Urteko Planaren baitan burututako prozesu, azpiprozesu eta jardueretan lortutako emaitzak, prozesuak eta azpiprozesuak kontrolatzeko adierazleen panelaren bidez neurtuak.

Ondorengoak dira lehen aipatutako iturrietan antzeman diren hobekuntza-arloak:

- Urteko Planaren jarduerak halako moduan planteatzea, non erreferentzia-ikuskariak ikastetxeak gainbegiratzeko prozesuari (erreferentzia-ikuskariaren urteroko Gainbegiratze Plana) dedikazio handiagoa eskaini ahal diezaion.
- Urteko Planean aurreikusitako jarduerak egitearen ondorioz kasu bakoitzean sortzen diren lan-kargak aztertzea.
- Helburuak beren adierazleekin ezartzea, haien jarraipena eta kontrola egin ahal izateko moduan.
- Ikuskariaren jarduerak hiru hileko giden bidez sistematizatzea.
- Lehentasunezkoen artean sartutako prozesu eta azpiprozesuetan horiek ebaluatu eta berrikusteko prozesuak sartu eta garatzea
- Ikastetxeek Ikuskaritzaren Urteko Plana, ezagutzea, beraietan hark duen eragina batez ere.
- Egin diren jardueren emaitzei buruzko informazioa ikastetxeei helaraztea.
- Lurralde mailan informazioa biltzeko datu-baseak edo beste aplikazio informatiko batzuk erabiltzeko prozesua osatzea (Urteko Plana Intranet-en kudeatzeko aplikazio informatikoa).

- Ikuskariek jarduteko irizpideak koordinatu eta bateratzea (ikastetxeei informazioa helarazi behar zaienean batez ere).
- Prestakuntza-jarduerak planifikatu eta, geroago, haien eraginkortasuna ebaluatzea.
- Gai interesgarriren bat prestatu eta geroagoko jardunaldi batean aurkeztu eta eztabaidarako eskaintzeko gai izango diren lan-taldeak zehaztea.

Ondorengoak nabarmentzen dira, besteak beste, Plan honetan aipatzen diren helburuen artean: Hezkuntza Ikuskaritzaren UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera ziurtagiria berritzea; Urteko Planean aurreikusitako jardueren lotutako guztian ikuskariek parte hartu eta prestakuntza jasotzea; diagnostiko-ebaluazioan, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioan parte hartzea; eta azkenik, 2008/09 ikasturtean irakaskuntza berriak ezartzeko prozesua ikuskatzen jarraitzea.

Halaber, hau ere aipatu behar da joan den ikasturteko Planari begira: indarrean jarraitzen du euskal hezkuntza-sistemaren premiei, oro har, eta ikastetxeen, Administrazioaren eta hezkuntza-erkidegoaren premiei, bereziki, Ikuskaritzaren jardueren lehentasunezko hartzaileak diren aldetik, eraginkortasunez erantzungo dien Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko nahiak. Horretarako, koordinazioa eta lan-taldeen osaketa sustatuko dira eta, Urteko Plan hau osatzen duten prozesuen plangintza, garapen eta ebaluazioan, ikuskariek parte hartzea eta ardura handiagoa beren gain hartzea bultzatuko dira.

LOEn aurreikusitako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe berriak sartuko dira eta, ondorioz, gero eta ardura handiagoak izango ditu Ikuskaritzak. 2008/09 ikasturteetik aurrera Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ematen dituzten ikastetxe guztiak erreferentzia-ikastetxetzat hartuko dira eta Haurreskolak Patzuergoko ikastetxeen kopurua handiko da, baita Arte Plastikoko eta Diseinuko irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeena ere.

2008/09ko Urteko Plan hau ondorengo atal eta eranskinetan egituratzen da:

- Kalitateari buruzko politika.
- Helburuak.
- Ikuskaritzako prozesuen mapa.
- Azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
- Euskalduntzea eta euskararen normalkuntza.
- Urteko Planaren ebaluazioa.
- Eranskinak:
 - I. eranskina: Ikuskaritzako prozesuen mapa.
 - II. eranskina: Ikuskaritza Planaren azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
 - III. eranskina: Ikuskaritza Planaren helburuak eta adierazleak.
 - IV. eranskina: Prestakuntza Planaren jarduerak.

2. KALITATEARI BURUZKO POLITIKA.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpean dagoen Hezkuntza Ikuskaritzak uste du bere lana beharrezkoa dela hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek bereziki, kalitatezko jardunbidea lortzeko.

Horregatik, premiazkoa da haren jarduerak behar bezala kudeatzea, eman zaizkion ebaluazioa, kontrola, aholkularitza eta lankidetzaren funtzioen arabera. Halaxe hartu behar izango du kontuan ikuskari bakoitzak bere eguneroko lanean; Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunbide ona bermatzeko, eta

Hezkuntza-Kidegoaren, Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideen beraien aldetik gogobetetze-maila handiena lor dadin.

Hezkuntza Ikuskaritzaren aktibo nagusia da bertan jarduten duen langileria (ikuskariak eta administrariak). Hala, Ikuskaritza Nagusia eta Lurralde-Burutzak, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren printzipio eratzailen arabera, langileria motibatua eta pozik egon dadin ahaleginguduko dira, pertsonal horren garapen pertsonal eta profesionalaren alde lan eginez.

Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere egiten du erakunde eraginkor bat izatearen aldeko konpromisoa, ondorengo ezaugarriekin: haren profesionalen parte hartzea eskainitako jarduera eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan, prozesuak etengabeko hobekuntzarako bideratzea eta Hezkuntza-Kidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzaren beraren gogobetetze-mailarik handiena erdiesteko jarduna.

Erakundearen helburuak betetzen direla ziurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskaritzaren jarduera gidatu behar duten estrategiak kontuan hartuko dituen. Hauek dira:

- Hezkuntza-Kidegoa osatzen duten sektoreek, hots, ikastetxeek, ikasleek, gurasoek eta Hezkuntza Administrazioaren arduradunek, beren jardueran dituzten beharrienei eta itzaropenei erantzuna ematea.
- Hezkuntza-Kidegoko kide ezberdinek luzatutako eskaerei emandako arreta hobetzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzari eta, oro har, berezko dituen jarduerari loturiko legezko eta arauzko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
- Era planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea.
- Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa bultzatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren barne eta kanpo komunikazioaren bideak hobetzea.
- Behar den malgutasunaz jokatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzaren jarduerari dagozkien eskakizun eta premietara egokitzeko.
- Ikuskaritzaren jardunean definitutako prozesuetan izan litezkeen akatsen arrazoiak identifikatu eta ezabatu, prozesu horiek eraginkorra izan daitezkeen.

Kalitate-politika honek behar den erreferentzia ematen du, Ikuskaritzaren jardueran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburuetan gauzatzen dira.

Hezkuntza Ikuskaritzak behar diren bideak ezarri ditu, politika hori pertsonal guztiari jakinarazteko eta beronek uler dezan, eta sistema berrikustean, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

3. HELBURUAK

Ondorengoak dira Urteko Plan honetan sartzen diren helburuak:

- Ikastetxeen kalitatea kudeatzeko sistemak, heziketa-zikloak eta praktiketako eta edo zerbitzu-eginkizunetako funtzionario irakasleak ebaluatzea.
- Diagnostiko ebaluazioak nola garatzen diren kontrolatzea.
- Hezkuntza Sailaren programa eta proiektuak ikastetxeetan nola gauzatzen diren kontrolatzea: CDP, HLPP...

- Indarreko legeria eta ikasturtearen hasierako ebazpenak ikastetxeetan nola betetzen diren kontrolatzea: ordutegiaren kontrola, curriculum...
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea: lanpostu hutsak betetzea, oposizioetako epaimahaiak, Urteko Plana hedatzea, lan-kargak...
- Ikuskariaren jarduerak koordinatu eta bateratzea, hiru hileko jardueren gidaren eta prozesu eta azpiprozesuen argibideen arabera.
- Indarreko legeriaren arabera, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak betetzen direla bermatzea: ikasleen eskubide eta betebeharrari buruzko Dekretu berria hedatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiriak, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera, berritzea.
- Dokumentazioa kudeatu eta paperean eta euskarri informatikoan artxibatzeke ezarritako sistema gaurkotu eta hobetzea.
- Ikuskariaren prestakuntza gaurkotzea: diagnostiko-ebaluazioa, irakaskuntza berrien ezarpena, prestakuntza juridiko eta administratiboa.
- Ikuskaritzaren txostenetan eta komunikazioetan erabilitako euskararen kalitatea gehitzea.
- Ikuskariaren hizkuntza-gaitasuna areagotzea.

III. eranskinean agertzen diren jardura eta adierazleen bidez egingo dira Plan honetan aurreikusten diren helburuen eta hobekuntza-arloen kontrola eta jarraipena.

4. IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA.

2006/07 ikasturteko Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuen mapak 2005/08ko Hiru Urteko Plan Nagusian ezarritakoa aldatu zuen, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren eskakizunetara egokitzeko. 2007/08 ikasturtean, kanpo-auditoriaren ondorioz, prozesuen mapa hura hobetu zen. Urteko Plan honetan I. eranskin gisa gaineratzen da.

Prozesuen bidezko kudeaketara bideratzen da Ikuskaritzak definitutako Kalitatea Gestionatzeko Sistema, antolaketa-egitura honen arabera.

- **Makroprozesuak** kalitatea kudeatzeko sistema deskribatzen dute eta UNE-EN ISO 9001:2000 araudira egokituta daude. Izan ere, araudi horren kapituluaren arabera antolatu dira.
- **Prozesuak** tresnak dira, makroprozesuak araudiaren baldintzen arabera garatzeko. “Zerbitzuak identifikatu eta ematea” makroprozesuaren kasuan, Ikuskaritzaren jardueren (azpiprozesuen) taldekatze gisa definitzen dira prozesuak, eta taldekatze hori kontrol, aholkularitza eta ebaluazioan oinarritutako irizpide funtzionalen arabera, eskaera nondik datorren, kanpo- eta barne-bezeroen tipologia zein den eta abar kontuan hartuta egin da.
- **Azpiprozesuak** Ikuskaritzaren jardueren konkretzioa dira eta 2008-11rako Hiru Urteko Plan Nagusiaren 4. atalean, “Ikuskaritzaren Prozesuak” deiturikoan, aipatuta agertzen dira.

Makroprozesuak hauek dira:

- 01 MP.- Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza.
- 02 MP.- Zerbitzuak identifikatzea eta ematea.
- 03 MP.- Giza baliabideen kudeaketa.
- 04 MP.- Kudeaketa dokumentala.

- 05 MP.- Baliabide materialen kudeaketa.
- 06 MP.- Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza.

I. eranskinean, Ikuskaritzako prozesuen mapan, zehazten dira makroprozesu bakoitzean sartuta dauden **prozesuak**.

Ikuskaritza Nagusiak, Lurralde Burutzek, Zonalde Burutzek eta prozesu zein azpiprozesuen arduradunek liderrak izan behar dute Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesu eta azpiprozesuetan adierazitako jarduerak garatzean.

5. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

02 MParen barruan dauden jarduerak edo azpiprozesuak dira Urteko Plan honen ardatz nagusia eta Hezkuntza Ikuskaritzak ematen dituen zerbitzuak zeintzuk diren zehazten dute. Jarduera hauek kontrol-, ebaluazio-, aholkularitza- eta lankidetzajardueretan sailkatzen dira.

Ikuskaritzari dagokio eta II. eranskinean zehazten da kontrol- eta ebaluazio-jardueren planifikazioa. Eranskin horretan, atal hauek konkretatzen dira jarduera edo azpiprozesu bakoitzerako:

- Ikuskaritzak egin beharreko azpiprozesu edo jardueraren izena.
- Aurreikuspenen arabera, egiteko aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta noiz emango den.
- Azpiprozesua aplikatzeko eremua: jarduten den ikastetxeak edo instituzioak.
- Azpiprozesua planifikatu eta programatzeaz arduratzen den taldea edo arduraduna.
- Jarduera ikastetxeetan egin behar duten ikuskariak eta horien jarduera-eremua: Zonaldea, Lurraldea edo Erkidegoa,.

Sistemaren agiriak kudeatzeko prozesuan ezarritakoa kontuan hartuta dokumentatu beharko dira azpiprozesu hauek (0401 PR Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola).

Aholkularitza-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzaren ekimenez egiten dira, erreferentzia-ikastetxeetan gauzatzen diren kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz, edo baita ere ikastetxeen edo Hezkuntza Saileko beste zerbitzuen eskaerei erantzuna emateko .

Azkenik, lankidetzajarduerak normalean lan-karga handia dira, Planeko jarduerak beren osotasunean hartuta, eta Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuen hartzaileen eskaerei ematen diete, betiere, erantzuna.

Lankidetzajarduerak horrela sailkatzen dira:

- Lankidetz-eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, non haien konplexutasunarengatik Ikuskaritzak berak gainontzeko azpiprozesuen antzera definitu eta planifikatu behar dituen.
- Hezkuntza Saileko arduradunek egindako txosten-eskaerei -indarreko legeriaren arabera derrigorrezkoak direlako edo Hezkuntza Sailetik kanpoko erakundeek (Euskadiko Eskola Kontseiluak, Arartekoak...) eskatzen dituztelako- erantzuna ematen dieten jarduerak. Ikuskaritza Zerbitzuaren edozein hartzailearen eskaerarengatik edo Ikuskaritzaren beraren ekimenez, egindako ebaluazio-, kontrol- eta aholkularitza-jardueren ondorioz, sor litezkeen txosten guztiak ere sartuko dira atal honetan.

- Parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko eskaerei erantzuna ematen dieten jarduerak, haien jabea Ikuskaritza bera ez denean (epaimahaietan, batzordeetan, EFQM ebaluazioetan parte hartzea...). Haien ardura duen organo edo erakundeak egindako oinarri edo argibide espezifikoean zehazten denaren arabera eramango dira aurrera jarduera mota horiek.

0203 PR eta 0204 PR prozesuetan ezarritako orientabideen arabera eramango dira aurrera aholkularitza- eta lankidetzajarduerak.

2008-11rako Hiru Urteko Plan Nagusian zehazten dira Hezkuntza Ikuskaritzak gehien egiten dituen aholkularitza- eta lankidetzajarduerak.

6. EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALKUNTZA.

2008/09 ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Planak zehazten duen pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzeari buruzko 0303 PR prozesua alde batera utzita (IV. eranskina), euskalduntzeari dagokionez, puntu hauek jakinarazten dira:

- Euskarak apur-apurka Ikuskaritzaren txostenetan eta, batez ere, Ikuskaritza Zerbitzuan bertan egiten diren bileretan gero eta presentzia handiagoa izatea du Ikuskaritzaren euskalduntzeak helburu.
- Ikuskaritzaren jakinarazpen eta txostenetan erabilitako euskararen kalitatea areagotzeko eta Euskara Erabiltzeko Planak aurreikusten duen horretan aurrera jotzeko, gehien erabiltzen den terminologia egokitu eta bateratuko da.
- 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatuta duten ikuskarrien ehunekoa areagotzea hartuko da kontuan Ikuskaritzaren langileria berritzeko orduan.

7. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA.

2008-09 ikasturtearen amaieran ebaluatuko da Urteko Plan hau eta, horretarako, ondorengo alderdien analisia eta ondorioak hartuko dira kontuan:

- Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barne- eta kanpo-auditorien emaitzak. Eskaintako prozesu eta zerbitzuetan gertatutako desadostasunak eta zuzentze- zein prebentzio-ekintzen egoera.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen premiak ezagutzea, horrela erantzun hobea eman ahal izateko asmoz.
- Urteko Planean aurreikusitako prestakuntzaren eta aurreikusia izan ez arren egin denaren eraginkortasuna neurtzea.
- Urteko Planaren baitan burututako prozesu, azpiprozesu eta jardueretan lortutako emaitzak, prozesuak eta azpiprozesuak kontrolatzeko adierazleen panelaren bidez neurtuak.
- Indarreko Urteko Planean proposatutako Kalitate Helburuetan lortu diren emaitzak baloratzea.

- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala eta Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko jarduerak gauzatzeko orduan Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren eraginkortasuna,.

Sistema Berrikusteari buruz Ikuskaritza Nagusiak egingo duen txostenean agertuko da Urteko Plan honen ebaluazioa. Txosten horrek, gutxienez, alderdi hauek azalduko ditu:


- Kalitatea Gestionatzeko Sistemari, oro har, eta horren barnean Kalitateari buruzko Politikari eta Kalitatearen Helburuei eragin ahal dioten aldaketak proposatzea.
- Helburuen lorpenean eta prozesu eta zerbitzuen adierazleetan lortutako emaitzak.
- Barne- eta kanpo-auditorien emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan izandako desadostasunak.
- Zuzentze- eta prebentzio-ekintzen egoera.
- Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.
- Iradokizun, kexa eta erreklamazioak.
- Hobetzeko gomendioak, oro har.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako emaitzak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 31a.

Ikuskari Nagusia



Izpta: Juan M^a Azpiria Zabala



II. ERANSKINA

2008/09rako IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen ebaluazioa										
0201 01	Kalitatea Gestionatzeko Sistemaren (KGS) ebaluazioa	2. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	04/03	KGS ikastetxeak	M. Bonet	C. Mediavilla A. Idígoras J. A. Fernández	KGSn esperientzia duten ikuskariak	EAE	
0201 03	Araubide orokor, bereziko eta kirol-irakaskuntzetako heziketa-zikloen auditoretzak.	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	05/30 06/30	Heziketa-zikloak dituzten ikastetxeen lagina	J.A. Romero	K. Arriaga P. Bilbatua J. A. González J. M. Kortazar	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	Lurraldea	
0201 05	Diagnostiko-ebaluazioa.	1. eta 3. hiruhilekoa	EAEko txostena	06/30	DBH eta LH ikastetxeak	J.Granja	R. Juan M. Hidalgo A. Fernández G. del Río	Erreferentzia-ikuskeriak + arduradunak	EAE	Ebaluazio-prozesuaren kalitate-kontrola. Emitzen analisia
0201 06	Ikastetxeen Autonomia Planen ebaluazioa	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	06/30	Autonomia plana duten ikastetxeak	M. Bonet	A. Idígoras K Totorikagüena K. Mujika JA. Fernández	Azpiprozesu-taldeko ikuskariak	EAE	

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa										
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak.	2. eta 3. hiru hilabetea	Bananako txostena	05/30	Guztiak	M. Bonet	PL. Rodriguez M. Hernández I. Erice	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0201 11	Lanpostuaren perfilera egokitzearen ebaluazioa	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Bananako txostena	Eskareren arabera	Eskaerak guztiak	J. A. Romero	Jefes-as Territoriales	Erreferentzia-ikuskeriak	Lurraldea	
0201 12	Irakaskuntzan jarduteko gaitasunaren ebaluazioa	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Bananako txostena	Eskareren arabera	Eskaerak guztiak	J. Granja	Jefes-as Territoriales	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0201 13	Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa (EPE)	2. eta 3. hiru hilabetea	Bananako txostena	06/30	Praktikak egiten dauden guztiak	M. Bonet	L. Rojo M. Hernández P. J. Macho P. Torres	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
0202 02	Ikastetxeen Prestakuntza Proiektuen kontrola eta jarraipena .	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	05/30	Onartutako proiektuak dituzten ikastetxeak	J. A. Romero	Jefes-as Territoriales	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 07	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen kontrola eta jarraipena	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	12/19	Ikastetxe guztiak	J. Granja	Mariví García L. Barrutia J. M. Guillén	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 08	Etxeko Hezkuntza Arretarako programaren kontrola eta jarraipena (EHA)	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Ikastetx. txostena EAEko txostena	Eskaeraren arabera	Eskaerak guztiak	J. Granja	R. Fernández C. Fernández JP. Risco	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
Curriculum-aniztasuneko programak / Hezkuntzan Parte Hartze Espezifikoak eta Eskolatzeko Osagarriak:										
0202 21	Curriculum desberdineko taldeen balorazioa eta kontrola	1. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	10/15	Eskaerak guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	
0202 24	Eskolatzeko Osagarriko Programen eskaerak baloratzea	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Bananako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaerak guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentzia-ikuskariak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Haur-eskolak										
0202 40	0-3 urteko Udal Haur Eskolen eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena .	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	06/30	0-3 urteko eskola pribatu eta udaleko guztiak	JM. Aztiria	J. Pérez J Solabarrieta I. Cereceda A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 41	Haurreskolen kontrola eta jarraipena	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	06/30	Haurreskola berri guztiak	JM. Aztiria	J. Pérez J Solabarrieta I. Cereceda A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua										
0202 50	Eskola Ekintzaren Dokumentuaren arau-kontrola (EED)	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	12/10 01/14	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez José A Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 51	Talde eta ikasle kopuruaren kontrola	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Ikastetx. txostena	Eskaeraren arabera	Ikastetxeak, eskaeraren arabera	Lurralde Buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 52	Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa.	2. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	03/31	Ikastetxe-lagina	J. Granja	R. Fernández A. Salvador A. Paniago J.P. Risco	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jarduereremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua										
0202 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntza-langileen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	Bananako txostena Lurralde- txostena	07/15	Ikastetxe publiko guztiak	M. Bonet	Marina García J. A. Otaduy J. P. Risco	Erreferentzia- ikuskeriak	Zonaldea	
0202 54	Organo kolegiatuen aukeraketen kontrola eta jarraipena.	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	12/20	Ikastetxe guztiak	M. Bonet	Mariví García I. Larrinaga M. Sainz de Urturi	Erreferentzia- ikuskeriak	Zonaldea	
0202 55	Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena	3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	06/30	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. L. Sabando J. A. Ayucar	Erreferentzia- ikuskeriak	Zonaldea	
0202 57	AJA eta BEAren kontrola	Ikasturte osoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	06/30	Ikastetxe guztiak	J. M. Aztiria	P. J. Romero I. Tazón			Esku-hartze planaren diseinua
0202 59	Zuzendaritza karguetarako izendapen-proposamenen kontrola	2. eta 3. hiruhilekoa	EAEko txostena	07/15 09/30	Ikastetxe publiko guztiak	M. Bonet	Marivi García P. Bilbatua X. Egizabal	Erreferentzia- ikuskeriak	Zonaldea	
0202 60	Zuzendaritzaz besteko karguen izendapen-proposamenen kontrola	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena	10/30	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez José A Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar	Erreferentzia- ikuskeriak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarrien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua										
0202 62	Erljioa ematearen kontrola	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	12/19	BH eta LH ikastetxe publikoak	J. Granja	R. Fernández A. Salvador P. Carnicero	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
Curriculuma										
0202 70	Ikastetxeko curriculuma kasuan kasuko hezkuntza-etapa eta -mailetan ezartze egiazkoaren kontrola eta jarraipena	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	03/30	HH Ikastetxe publikoak	M. Bonet	PL. Rodríguez R. Terán D. Rabanal D. Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 71	Programazio didaktikoen ikuskatzea eta kontrola	1. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	12/20	DBH, Batx eta Heziketa Zikloak dituzten ikastetxe guztiak	J. Granja	Marivi García PM. Legarreta K. Mujika E. Valencia	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 73	Curriculuma Norbanakoari Egokitze-eskaeren (CNEen) kontrola	1. hiruhilekoa	Bananako txostena	12/20	Proposamen guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 74	Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola	1. hiruhilekoa	Bananako txostena	09/30	Eskaerak guztiak	M. Bonet	PL. Rodríguez D. Rabanal P. Carnicero	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
Irakasle eta ikasleak										
0202 83	Euskara-salbuespenen kontrola	1. hiruhilekoa	Bananako txostena	12/20	Eskaerak guztiak	J. Granja	C. Mediavilla L. Puente E. Berazadi M. Zarraonandia	Azpiprozesu-taldeko ikuskeriak	Lurraldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakasle eta ikasleak										
0202 84	DBHko Graduatu-proposamenen kontrola	3. hiruilekoa	Ikastetx. txostena	07/15	Proposamen guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 85	Irakasleen titulazioen kontrola	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera.	Bananako txostena		PTko habilitazio-eskaerak	M. Bonet	R. Fernández B. Urkullu P. Peñacoba	Azpiprozesu-taldeko ikuskeriak	Lurraldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola	Ikasturte osoa	EAEko txostena	07/15	L Hezkuntza eta DBHko ikastetxe guztiak	I. Cereceda	Marina García L. Barrutia P. Carnicero	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 87	Ikasleen arteko larderiaren eta tratu txarren eraginaren kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	EAEko txostena	06/30	Gertatzen diren ikastetxe guztiak	J. M. Aztiria	J. Grisaleña M ^a T. Ruiz Lourdes Isasa Nile Arroita B. Manzarbeitia	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 90	Araubide orokorreko irakaskuntzetako emaitza akademikoen kontrola eta hedapena	1. eta 3. hiruilekoa	EAEko txostena	09/30	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. A. Sánchez	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 91	Ikastetxe publikoetako langileenganako-eraso kasuen kontrola eta jarraipena	Ikasturte osoa	EAEko txostena	06/30	Gertatzen diren kasuak	M. Bonet	Lurralde Buruak	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	

0202 PR Kontrol-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Eaitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Irakasle eta ikasleak										
0202 92	Langileen eta ikasleen lanuzteen kontrola	Ikasturte osoa	EAEko txostena	---	Gertatzen diren ikastetxe guztiak	M. Bonet	PL Rodríguez JL Sabando D Mazuela	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 93	Ebaluazio-akten kontrola eta gainbegiratzea	3. hiruhilekoa	---	07/15	Ikastetxe guztiak	J. Granja	R. Fernández A. Salvador A. Paniego J.P. Risco	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 94	Bizikidetza Planen kontrola eta jarraipena	2. eta 3. hiruhilekoa	Ikastetx. txostena EAEko txostena	06/30	Bizikidetza Plana duten ikastetxe publikoak	J. M. Aztiria	M ^a T. Ruiz E. Berazadi Nile Arroita A. Fernández	Erreferentzia-ikuskeriak	Zonaldea	
0202 95	Enplegatu publikoaren diziplina-araubidea aplikatzea	Ikasturte osoa	Bananako txostena	06/30	Ikastetxe publikoak	M. Bonet	J.I. Molinuevo P. Peñacoba A. Paniego I. Bernaola	Izendatutako ikuskeriak	EAE	

III. ERANSKINA

IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

HELBURUA URTEKO PLANA 2008-09	Dagokion Hiru Urteko Plan Nagusiaren helburua	Dagokion XEDEA/IKUSPEGIAren alderdia	EKINTZAK	KALITATE EZAUGARRIA	ADIERAZLEA	ONARTZEKO IRIZPIDEA	EPEA	ARDURADUNA
Ikastetxeen kalitatea kudeatzeko sistemak, heziketa-zikloak eta praktiketako eta zerbitzu-eginkizunetako funtzionario irakasleak ebaluatzea	Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea	X 3.-Ikastetxeak eta beren emaitzak zein pertsonala ebaluatzea I 6.-Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea	PR 0201en azpiprozesuak garatzea. Ebaluazio-jarduerak.	PR 0201en azpiprozesuak (0201 01, 0201 03, 0201 10 eta 0201 13) betetzen dituzte haietako bakoitzerako ezarritako helburuak.	Helburuak betetzen dituzten azpiprozesuen %.	70%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Diagnostikoaren ebaluazioak nola garatzen diren kontrolatzea	Diagnostiko-ebaluazioetan parte hartzea eta ikastetxeen hobekuntza-planak gainbegiratzea	X 3.-Ikastetxeak eta beren emaitzak zein pertsonala ebaluatzea I 6.-Ikastetxeak eraginkortasunez ebaluatzea	AZ 0201 05ean aurreikusitako jarduerak garatzea.	Ikuskaritzak egiten du diagnostikoaren probak egiteko kontrolatzeari buruzko txostena.	Txostena duten lagineko ikastetxeen %	100%	09ko apirilaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Hezkuntza Sailaren programa eta proiektuak ikastetxeetan nola gauzatzen diren kontrolatzea: CD, PCPI...	Hezkuntza Sailaren programak eta proiektuak ikastetxeetan zenbat garatu diren kontrolatzea	X 2.- Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen laguntzea X 5.-Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea	Saileko programen kontrolari eta jarraipenari lotutako PR 0202 azpiprozesuetako jardueren garapena: 0202 02, 0202 07, 0202 08, 0202 21 eta 0202 24.	Saileko programen kontrolari eta jarraipenari lotutako azpiprozesuetako jarduerak betetzen dituzte bakoitzerako aurreikusitako helburuak.	Helburuak betetzen dituzten jardueren %	80%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Indarreko legeria eta ikasturtearen hasierako ebazpenak ikastetxeetan nola betetzen diren kontrolatzea: ordutegiaren kontrola, curriculumak, ...	Indarrean dagoen araudia eta ikasturte hasierako Ebazpenak ikastetxeetan betetzen diren kontrolatzea	X 1.- Indarreko legeria betetzen den kontrolatzea eta, horretarako, behar den aholkularitza eta informazioa ematea X 5.-Hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari buruzko informazioa hezkuntza-administrazioari ematea	0202 50, 0202 62, 0202 70 eta 0202 71 azpiprozesuetako jardueren garapena.	Azpiprozesuetako jarduerak betetzen dituzte haietako bakoitzean aurreikusitako helburuak.	Helburuak betetzen dituzten jardueren %	70%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzutea: lanpostu hutsak betetzea, oposizioetako epaimahaiak, Urteko Plana hedatzea, lan-kargak...	Hezkuntza Ikuskaritzako jardueren barne- nahiz kanpo-hartzaileen beharizanei modu eraginkorrean erantzutea	X 2.-Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen laguntzea	Administrazioaren eskariz jarduerak garatzea.	Ikuskaritzak Administrazioaren eskaerei ematen die erantzuna.	Erantzuna eman zaien eskaeren %	100%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
			Urteko Plana ikastetxeei hedatzea.	Ikastetxeek Ikuskaritza Plana zein mailatan ezagutzen duten baloratzea.	Hartzaileak pozik dauden baloratzeko inkestaren 5. galderaren emaitza globala.	7,5		
			Planeko jarduerak duten lan-kargaren azterketa.	Planeko jarduerari ematen zaizkien lan-kargak aztertzea.	2008/09 ikasturtean bukatuko duen azterketa.	Ekainaren 30a baino lehenago	09ko ekainaren 30a	

HELBURUA URTEKO PLANA 2008-09	Dagokion Hiru Urteko Plan Nagusiaren helburua	Dagokion XEDEA/IKUSPEGIAREN alderdia	EKINTZAK	KALITATE EZAUGARRIA	ADIERAZLEA	ONARTZEKO IRIZPIDEA	EPEA	ARDURADUNA
Indarreko legeriaren arabera, hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta betebeharrak betetzen direla bermatzea: ikasleen eskubide eta betebeharrak buruzko Dekretu berria hedatzea	Hezkuntza-komunitatearen eskubideak eta betebeharrak bermatzea, indarrean dagoen araudiaren arabera	X 2.-Kalitatezko hezkuntza-sistema lortzen laguntzea X 4.-Hezkuntza-komunitateko hainbat sektoreen eskubideak bermatzea I 3.-Hezkuntza komunitateko kide guztiak, ikasleek bereziki, kalitateko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzea	Dekretu berria ikastetxeetan errazago aplikatzeko gida bat egin eta hedatzea.	Erreferentziako ikuskariek eskubide eta betebeharrak dekretu berriari eta gidari buruzko informazioa ematen diete ikastetxeei.	Informazioa jaso duten ikastetxeen %	80%	09ko maiatzaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Ikuskarrien jarduerak koordinatu eta bateratzea, hiru hileko jardueren gidaren eta prozesu eta azpiprozesuen argibideen arabera.	ISO 9001:2000 egiaztagiria mantentzea eta barne-kudeaketako nahiz -antolaketako gauzak hobetzea	I 4.-Taldean lan egitea modu koordinatuan eta irizpide bateratuaren arabera	Prozesuen eta azpiprozesuen argibideak argitaratu eta gaurkotzea.	Azpiprozesuen argibideak barne web-ean, hiru hileko bakoitzaren hasieran, eman dira argitaratu.	Barne web-ean argitaratu emandako azpiprozesuen kopurua	5	Hiru hileko bakoitzaren hasieran.	Ikuskaritza Nagusia
Dokumentazioa kudeatu eta paperean eta euskarri informatikoan artxibatzea ezarritako sistema gaurkotu eta hobetzea			Dokumentazioa kudeatu eta artxibatzea programa informatiko bat egitea.	Hiru lurretan aplikatzen da dokumentazioa kudeatu eta artxibatzea programa.	Programa erabiltzen duten lurren eta egoitzen kopurua.	4	08ko abenduaren 15a	Inspección Central
Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiriak, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera, berritzea	ISO 9001:2000 egiaztagiria mantentzea eta barne-kudeaketako nahiz -antolaketako gauzak hobetzea	I 7.-Hezkuntza-sistemaren hobekuntza-prozesua gidatzea etorkizunaren ikuspegiarekin eta arazoei aurre hartzearekin	Ikuskaritza Planaren kudeaketa, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera.	UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren ezarritakoaren arabera berrikusten da Planaren kudeaketa.	2008-2009 ikasturtean egiten da barne auditoria.	Auditoria 2009ko martxoaren 1a baino lehenago egitea	09ko martxoaren 1a	Ikuskaritza Nagusia
I 5.-Hezkuntza-komunitatearen errespetua eta onarpen soziala jasotzeko merezimendua lortzea								
I 1.-Esleituta dituen funtzioak irizpide teknikoaren arabera eta izan ditzakeen kanpoko presioei men egin gabe betetzea								

HELBURUA URTEKO PLANA 2008-09	Dagokion Hiru Urteko Plan Nagusiaren helburua	Dagokion XEDEA/IKUSPEGIAren alderdia	EKINTZAK	KALITATE EZAUGARRIA	ADIERAZLEA	ONARTZEKO IRIZPIDEA	EPEA	ARDURADUNA
Ikuskarrien prestakuntza gaurkotzea: ebaluazio diagnostikoa, irakaskuntza berrien ezarpena, prestakuntza juridiko eta administratiboa	Ikuskarrien prestakuntza eguneratzea Urteroko Planak betetzetik sortzen diren beharrezan araber	1 2.-Beraien partaideak ondo prestatutako profesionalak izatea, informazioa eta etengabe eguneratzearen aldeko konpromisoa dutenak	Ikuskaritzaren Urteko Prestakuntza Plana egitea.	Prestakuntza Planaren jarduerak 2008-11ko Hiru Urteko Planean ezarritako lehenasunezko helburuei ematen diete erantzuna.	Prestakuntza-Planean kontuan hartzen diren lehenasunezko alderdien %	100%	08ko azaroaren 15a	Ikuskaritza Nagusia
				Aurreikusitakoaren arabera egiten dira Prestakuntza Planaren jarduerak.	Ikasturtean zehar egindako jardueren %	90%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Ikuskaritzaren txostenetan eta komunikazioetan erabilitako euskara kalitatea gehitzea	Euskararen erabilera sustatzea hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko		Ikuskaritzaren ohiko idazkietan euskaraz gehien erabiltzen den terminologia bateratzeko irizpideak zehaztu eta ezartzea.	Ikasturte honetan Ikuskaritzak ditu bere idazkietan erabilitako euskara bateratzeko irizpideak (Ikuskaritzan euskara erabiltzeko eskuliburua).	Euskara erabiltzeko eskuliburua ikasturte honetan zehar egitea.	Eskuliburua maiatzaren 30a baino lehenago egingo da.	09ko maiatzaren 30a	Ikuskaritza Nagusia
Ikuskarrien hizkuntz gaitasuna areagotzea			Lanpostu hutsen urteroko deialdian 2. hizkuntz eskakizunaren baldintza hartzen da kontuan.	HE2 egiaztatutako pertsonen bidez betetzen dira lanpostu hutsak Ikuskaritzaren plantilan.	HE2 duten pertsonen bidez urtero betetzen diren lanpostu hutsen %.	100%	09ko uztailaren 30a	Ikuskaritza Nagusia

URTEKO PLANA 2008/09 -aren HOBEKUNTZA ARLOAK	JARDUERAK	KALITATE EZAUGARRIA	ADIERAZLEA	ONARTZEKO IRIZPIDEA	EPEA	ARDURADUNA
Ikastetxeetan egin diren jardueren buruzko informazioa ikastetxeetan beraietan ematea: txostenak, balorazioak...	EAE mailako txostena duten Ikuskaritzaren Urteko Planaren jarduerak laburtzeko txostenak egin eta web orrian argitara ematea.	Egindako jardueren txosten eta laburpenak web orrian ematen dira argitara.	EAE mailako txostena duten eta web orrian argitara eman diren jardueren %.	% 80a	2009-07-30	Ikuskaritza Nagusia
Erreferentziako ikuskariak beren ikastetxeak ikuskatzeko eran dedikazio handiagoa eduki ahal izateko moduan bideratzea Urteko Planaren jarduerak (erreferentziako ikuskariak urtero ikuskatzeko prozesua).	Erreferentziako ikuskariak urtero ikuskatzeko plana egingo duen lantalde bat sortzea.	Erreferentziako ikuskariak urtero ikuskatzeko planerako proposamen bat egitea.	Erreferentziako ikuskariak urtero ikuskatzeko planari buruz egin den proposamena.	Epean egindako proposamena	2009-06-30	Ikuskaritza Nagusia
Lan-taldeak sortzea (batzordeak alde batera utzita). Talde horiek gai interesgarriren bat prestatuko dute, geroagoko jardunaldi batean aurkeztu eta eztabaidatzeko (aldez aurretik guztien arteko eztabaida izango da, gaiari buruzko ikuspegia aberasteko asmoz).	Ikuskaritza Nagusiak proposatutako gai interesgarri bati buruzko iradokizunak eta proposamenak egingo dituen lan-talde bat sortzea, geroago prestakuntza-jardunaldi batean aurkezteko.	Prestakuntza-jardunaldia egiten da, gaiari buruz parte hartuz eta eztabaidatuz.	Jardunaldian egindako eztabaida.	Epean egin dira jardunaldia eta eztabaida	2009-06-30	Ikuskaritza Nagusia

IV. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA PLANAREN EKINTZAK

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDUEN KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN AZPIPROZESUAK	Ikuskaritzaren lana egiteko dauden tresnak erabiltzeko behar den euskarri teorikoa eskuratzea, barneko WEB orrian diseinatutako kontsulta-sistema eta Ikuskaritzan diseinatu eta ezarritako azpiprozesu guztiak erakutsiz.	2008ko IRAILAREN 15a	2:30	IKUSKARI BERRIAK
ALDERDI JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK.	Ikuskariak administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean egin beharreko jarduera zehaztea.	2008ko IRAILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
IRAKASLEEN FUNTZIO ETA ARDURAK DIZIPLINA ERANTZUKIZUNAREN ALDERDI OROKORRAK.	Irakasleek, beren funtzioetan jardutean, eginbeharrak urratzen badituzte, administrazioaren aldetik aplikatu beharreko prozedura ezagutzea.	2008ko IRAILA	5	IKUSKARI BERRIAK
LOE GARATU ETA EZARRI IZANAREN ONDORIOZ HEZIKETA ZIKLOAK EZARTZEA.	Heziketa Zikloak EAEn ezartzeko prozesuaren gai espezifikoak ezagutzea.	2008ko IRAILA	5	LHko IKASTETXEAK DITUZTEN IKUSKARIAK
ALDERDI JURIDIKOAK. OINARRIZKO MODULUA IKUSKARIEN JARDUERAREN OINARRIZKO LEGEAK ADMINISTRAZIO PROZEDURA FUNTZIO PUBLIKOA	Ikuskariak jarduteko legezko esparru orokorrari eta euskal funtzio publikoaren barruko administrazio-prozedurari buruzko ezagutza gaurkotzea.	2008ko URRIA	5	IKUSKARI GUZTIAK

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDUEN KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK
<p>ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO 1. MODULUA</p> <p>IRAKASLEEN ERANTZUKIZUN ZIBIL ETA PENALA. ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNA.</p> <p>ENPLEGATU PUBLIKOAREN DIZIPLINA ERANTZUKIZUNA: HEZKUNTZAREN ESPARRUA.</p>	<p>Enplegatu publikoek, beren funtzioetan aritzean, eginbeharrak ez betetzeak eragindako ondorioak ezagutzea: erantzukizun zibila, penala...</p> <p>Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizuna ebazteko prozedurak ezagutzea.</p> <p>Enplegatu publikoek beren eginbeharrak ez betetzean eta diziplina-erantzukizunaren kasuan Administrazioak jarduteko prozedurak ezagutzea. Kasu bereziak.</p>	2008ko URRIA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<p>ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO 2. MODULUA.</p> <p>IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK. ADIN TXIKIKOAREN ESKUBIDEAK BABESTEA.</p>	Adin txikikoen eskubide eta betebeharrak arautzeko prozesua ezagutzea eta ikasleen eskubideak hezkuntza-esparruan babestea.	2008ko AZAROA	5	IKUSKARI GUZTIAK
<p>ALDERDI JURIDIKOEI BURUZKO 3. MODULUA.</p> <p>HEZKUNTZA-SISTEMAREN EGITURA ETA ANTOLAKETA. LOE: EAEko OINARRIZKO HEZKUNTZAREN CURRICULUM-DEKRETUA/EAEen EBALUATZEKO AGINDUA/HLPPak</p>	LOE EAEn gauzatu eta ezartzeko prozesua ezagutzea.	2008ko ABENDUAREN 5a	5	IKUSKARI GUZTIAK
<p>EUSKARA</p> <p>LEGEZKO ARAUTZEA ETA ALDATZE PROIEKTUAK. HIZKUNTZA PROIEKTUAK IKASTETXEETAN. EGITEA ETA EBALUATZEA.</p>	Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sisteman hizkuntza-alderdien araudia eta alderdi horiek aldatzeko proiektuak ezagutzea. Hizkuntza-proiektuen ebaluazioa.	ABENDUA URTARRILA OTSAILA MARTXOA	5	IKUSKARITZAKO KIDE GUZTIAK

PRESTAKUNTZA EKINTZAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDUEN KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK
EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA IKASLEENGAN GARATUTAKO GAITASUNEN DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA .	a) Probak egiteko metodologia ezagutzea, Ikastetxeei aholkularitza emateko. b) Ikuskaritzak diagnostiko-ebaluazioan esku hartzeko estrategiak bateratzea.	2008ko URRIA	5	IKUSKARI GUZTIAK
EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA GAITASUNETAN OINARRITUTAKO CURRICULUMAK.	Ikuskaritzak jardutean irizpide argi eta bateratu batzuk lortzea, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum-proiektuak eta programazioak aztertu eta horien jarraipena egiteko orduan.	2009 OTSAILA, MARTXOA ETA APIRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA BITARTEKARITZAKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO TEKNIKAK.	Bitartekaritzaren esparrua ezagutu eta berorretan gaitasunak eskuratzea, Ikuskaritzaren lana ikastetxeetan aurrera eramateko. Ikastetxeetan esku hartzeko strategiak ezagutzea.	2009ko OTSAILA, MARTXOA ETA APIRILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
ISO KALITATEAREN METODOLOGIA	AUDITORIAK. Ikuskariak prestatzea ikastetxeei egin beharreko auditorien esparruan.	2008ko URRIA	14	25 IKUSKARI
APLIKAZIO INFORMATIKO AURRERATUAK	Datu-baseen programazioetan ikuskari talde bat trebatzea.	AZAROA, ABENDUA ETA 2009ko URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA ETA APIRILA	60	10 IKUSKARI
AZPIPROZESUEN DATU-BASEAK	Ikuskaritzan erabiltzen diren aplikazio informatikoen ezagutza eta erabilpena hobetzea.	2009ko OTSAILA, MARTXOA ETA APIRILA	2	IKUSKARI GUZTIAK ADMINISTRARIAK
OINARRIZKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	Ikuskari talde bat oinarrizko aplikazio informatiko batzuetan trebatzea: ACCESS;EXCELL;..	2009ko OTSAILA, MARTXOA ETA APIRILA	5	IKUSKARIAK LURRALDEKA
IKUSKARITZAREN IV. JARDUNALDIAK	Hezkuntza Ikuskaritzaren gai espezifikoetan prestakuntza handiagoa ematea. Ikuskaritzaren lan-giroa hobetzea.	2009ko MAIATZA ETA EKAINA	10	IKUSKARI GUZTIAK